## LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

### 1030

164/1995 DEKRETUA, otsailaren 14koa, Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Lankidetza Kontseilua sortzeko dena.

Urdaibaiko Biosfera Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen bitartez Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Patronatua sortu zen, berori zuzentzeko. Patronatua erakunde hauetako ordezkariek osatzen dute: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, eraginpeko udaletxeak, Estatuaren administrazioa, Unescoko «Gizakia eta Biosfera» egitasmoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko eremuan lan egiten duten erakunde ekologista eta babesleak, ingurugiroa aztertzeko eta babesteko lan aipagarria egin duten Euskadiko erakundeak eta gebenaldeko artezkari arduraduna.

Geroztik, Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeak hartzen duen lur eremuan eragina duten zenbait gizarte sektore ordezkatzen duten erakundeek gebenaldeko egintzen garapenean parte hartzeko asmoa erakutsi dute.

Horiek horrela, derrigorrezkotzat jotzen da parte hartzeko bideak irekitzea eta ildo horretatik, komenigarri ikusten da eskakizun horiei erantzuna emango dien organu laguntzaile bat sortzea.

Organu berri horretan berebiziko garrantzia izango du Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko artezkari arduradunak, bera izango baita organuaren eta patronatuaren arteko informazio zubi. Artezkariaren betebeharrak arau honetan daude jasota eta Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Patronatuaren aldeko irizpena jaso dute.

Ondorioz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko otsailaren 14an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren hauxe:

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Lankidetza Kontseilua sortzea. Erakunde hori Patronatuari laguntzeko sortzen da eta Eusko Jaurlaritzako ingurugiro organuari dago atxikita.

*2. atala.*– 1.– Lankidetzarako Kontseiluan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da behar bezala legeztatutako erakundea izatea eta egoitza soziala edo ordezkaritzaren bat Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeak hartzen duen lur eremuan izatea. Horretaz gain, erakunde horien estatutuetan jasota egongo da bertako jabe eta biztanleen interesen alde eta naturaren azterketan edota defentsan iharduten dutela edo, bestela, Urdaibaiko eremuan diharduten gizarte, ekonomi eta kultur sektoreen ordezkari izan beharko dute.

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

### 1030

DECRETO 164/1995, de 14 de febrero, por el que se crea el Consejo de Cooperación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

La Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, creó el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai como órgano rector de la misma, integrado por representantes del Parlamento Vasco, del Gobierno Vasco, de la Diputación Foral de Bizkaia, de los Ayuntamientos afectados, de la Administración del Estado, así como, representantes del programa «Hombre y Biosfera» de la Unesco, de la Universidad del País Vasco, representantes de las asociaciones ecologistas y conservacionistas del ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y de asociaciones de Euskadi con una trayectoria acreditada en el estudio y protección del medio ambiente y el Director Conservador de la Reserva.

Posteriormente, varias entidades representativas de sectores sociales con incidencia en el territorio de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, han manifestado su interés en participar de forma activa en el desarrollo de las actividades de la Reserva.

Dada la necesidad de establecer unos canales de participación, se estima oportuno crear un órgano meramente colaborador que permita atender a estas demandas.

En el nuevo órgano, el Director Conservador de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai desarrollará un papel importante como vehículo de información entre éste y el Patronato, ejecutando las funciones que esta norma le atribuye, las cuales han sido informadas favorablemente por el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

En virtud de lo anterior, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 14 de febrero de 1995.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se crea el Consejo de Cooperación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai como órgano colaborador del Patronato, adscrito al órgano ambiental del Gobierno Vasco.

*Artículo 2.*– 1.– Podrán formar parte del Consejo de Cooperación las entidades debidamente legalizadas, con domicilio social o delegaciones en el ámbito territorial de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, que se encuentren estatutariamente vinculadas a la defensa de los intereses de los propietarios y vecinos de la misma y al estudio y/o defensa de la naturaleza, o bien sean representativas de sectores sociales, económicos y culturales que desarrollen su actividad en el área de Urdaibai.

2.– Lankidetza Kontseilua osatuko duten erakundeak izendatzeko ihardunbidea hau izango da:

a) Interesa duten erakundeek Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Patronatuari zuzendutako eskabidea izapidetuko dute. Bertan, atal honen lehenengo zatiko eskakizunak betetzen direla egiaztatu beharko da.

b) Patronatuko lehendakariak, osoko bilkurari entzun ondoren, Lankidetza Kontseiluko erakundeak izendatuko ditu.

c) Erakunde bakoitzak Lankidetza Kontseiluan izango duen ordezkaria izendatuko du.

3.– Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Lankidetzarako Kontseiluaren eginkizunak hauek izango dira:

a) Ordezkatutako sektoreen interesak eta iharduerak eta Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko helburuak eta egintzak era harmonikoan koordinatzeko irizpideak eta neurriak sustatzea.

b) Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko iharduerak garatzerakoan Lankidetza Kontseiluan ordezkatuta dauden erakundeen arteko lankidetza sustatzea.

c) Ordezkatutako erakundeen eta Urdaibaiko Biosfera Gebenaldearen artean, denentzat interesgarri diren egintzak antolatzea.

d) Koordinazioa, harmonizazioa, parte hartzea eta, oro har, Biosfera Gebenaldearen helburuak lortzeko egoki ikusten diren ekimen, proposamen eta iradokizunak Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Patronatuaren aurrera eramatea.

e) Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko Patronatuak proposatzen dizkion gaiei buruzko irizpena ematea.

f) Kontseiluaren beraren antolaketa eta funtzionamendurako araudia onartzea edota aldatzea.

*3. atala.*– 1.– Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko artezkari arduradunak egingo ditu Lankidetza Kontseiluaren bilkuretarako deiak eta lehendakari lanak ere berak egingo ditu.

2.– Artezkari arduraduna Patronatuaren eta Lankidetza Kontseiluaren arteko informazio zubi izango da; hauek dira, beraz, arlo horretan bete behar dituen eginkizunak:

a) Lankidetza Kontseiluari Patronatuan hatutako erabakien berri aldiro-aldiro ematea.

b) Lankidetza Kontseiluari kudeaketaren nondik norakoak eta ihardute programak zenbateraino bete diren urtero jakinaraztea.

c) Patronatuari Lankidetza Kontseiluak hartzen dituen erabakien berri ematea.

3.– Kontseiluaren barnean alorkako batzordeak eta eginkizun jakinetarako lantaldeak sor daitezke. Horien koordinazioa artezkari arduradunak egingo du.

2.– El procedimiento para la designación de las entidades que integrarán el Consejo de Cooperación será el siguiente:

a) Las entidades interesadas tramitarán la correspondientes solicitud dirigida al Presidente del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, en la cual se deberá justificar el cumplimiento de los requisitos mencionados en el punto 1 de este artículo.

b) El Presidente del Patronato, una vez escuchado el Pleno del mismo, procederá al nombramiento de las entidades del Consejo de Cooperación.

c) Cada entidad del Consejo de Cooperación designará un representante a través del cual canalizará su participación.

3.– Son funciones del Consejo de Cooperación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai:

a) Promover criterios y medidas para coordinar armónicamente los intereses y las actividades de los sectores representados con los objetivos y las actuaciones en Urdaibai.

b) Fomentar la cooperación entre las entidades representadas en el Consejo de Cooperación, en el desarrollo de las actividades de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

c) Concertar actuaciones de interés común entre las entidades representadas y la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

d) Plantear al Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai iniciativas, propuestas y sugerencias para el mejor logro de las finalidades de coordinación, armonización y participación y, en general, de los objetivos específicos de la Reserva de la Biosfera.

e) Emitir informe sobre los asuntos que el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai le someta.

f) Aprobar y modificar su propio reglamento de organización y funcionamiento.

*Artículo 3.*– 1.– Las sesiones del Consejo de Cooperación serán convocadas y presididas por el Director Conservador de la Reserva la Biosfera de Urdaibai.

2.– El Director Conservador será el vehículo de información entre el Patronato y el Consejo de Cooperación y a tal efecto le corresponderán las siguientes funciones:

a) Informar regularmente al Consejo de Cooperación de los acuerdos adoptados por el Patronato.

b) Dar a conocer anualmente al Consejo de Cooperación las directrices de gestión y el estado de ejecución de los sucesivos programas de actuación.

c) Informar al Patronato de los acuerdos que adopte el Consejo de Cooperación.

3.– En el seno del Consejo podrán formarse comisiones de carácter sectorial y grupos de trabajo específicos, los cuales serán coordinados por el Director Conservador.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Lankidetza Kontseiluari, kide anitzeko organoa den aldetik, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. idazpuruko 2. atalean jasotzen den araudi orokorra ezarriko zaio, osagarri gisa.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Al Consejo de Cooperación, como órgano colegiado le será de aplicación, con carácter supletorio, el régimen general contemplado en el capítulo 2 del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Ordenación del Territorio,
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JAURLARITZAREN LEHEDAKARIORDETZA

**1031**

178/1995 DEKRETUA, otsailaren 28koa, Koordinazio zuzendaria izendatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 18. ataleko j) idazatian, 26. ataleko 6. idazatian eta 29. atalean xedatzen denaren arabera, Jaurlaritzaren lehendakariordearen proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko otsailaren 28an egin zuen bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Koordinazio zuzendari izateko, Joseba Andoni Alcalde Amutxategi jauna izendatzea.

*2. atala.*– Dekretu honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunetik hasita ekarriko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko otsailak 28.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**1031**

DECRETO 178/1995, de 28 de febrero, por el que se nombra al Director de Coordinación.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Vicepresidente del Gobierno, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de febrero de 1995,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Nombrar a D. Joseba Andoni Alcalde Amutxategi Director de Coordinación.

*Artículo 2.*– El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Vicepresidente del Gobierno,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.